13. EDIZIOA
2007ko MAIATZA

Global express

Gaur egungo egoera ikasgelan

¡Viaje con nosotros... si quiere gozar!

Azken 15 urteetan, bidaiari-kopurua bikoiztu egin da, eta barruko bidaiarien kopurua 10 aldiz handitu da. Agian, lehen bidaiak egiten zituztenek orain gehiago egingo dituzte, baina, batez ere, turisten joan etorriak handitu egin dira. Turismoaren alde alaiak, ordea, egoera konplexuagoak ditu ezkutuan.

Global express-en edizio honek turismoaren egoera azaltzen digu, haren indarra eta turismo-eredu nagusiaren ondorioak aztertzeko elementuak aurkezten dizkigu, eta turista gisa ditugun erantzukizunei buruz gogoeta egiten laguntzen digu.

Intermón Oxfam

aurkibidea

Historia pixka bat

Nori egiten dio mesede turismoak?

Gaizki-ulertu eta nahasketa batzuk

Bidezko etekinak emango dituen turismoa

Nola bidaiatu inbaditu gabe

"842 milioi bisitari eta % 4,5eko hazkundea lortuta, 2006k aurreikuspen guztiak gainditu zituen: batezbestekoa baino emaitza handiagoak lortzen jarraitu du turismoak, eta sektoreak markak hautsi zituen 2006an ere". Hala aurkeztu zuen Turismoaren Mundu Erakundeak munduko turismoaren egoerari buruzko urteko txostena, eta 2007rako aurreikuspenek joera bera izango dutela dirudiela adierazi zuen.

Historia pixka bat

Historia pixka bat

Grezia klasikoan, Joko Olinpikoek bidaia turistikoen antzeko helburuko bidaiak eragiten zituzten; bestalde, Erroma Inperialeko aberatsak ur termalak hartzera joaten ziren eta uda beren villetan igarotzen zuten. Baina, turismoa, egun ulertzen dugun modura, XIX. mendean sortu zen, Iraultza Industrialaren ondorioz, aisialdia, atsedena, kultura, osasuna, negozioak edo familia-harremanak helburu zituzten bidaiak hasi zirenean.

Erdi Aroan erromesaldiek zuten turismoaren antzik gehien, —batez ere, Done Jakue Bidea—. Nolabait Europa zeharkatzen zuen ibilbide handi bat sortzen zuten. Portugaldarren, britainiarren eta espainolen itsas espedizio handiek bidaiatzeko grina piztu zuten, eta grina horri erantzun zioten; hori izan zen, hain zuzen, Errenazimenduaren adierazgarrietako bat. Turismoaren aurrekaririk argiena, ordea, Ingalaterrako aristokraziak ezarri zuen; izan ere, gazteak **tour handi** bat egitera bidaltzeko ohitura zuten (hortik dator 'turismo' terminoa): ikasketak amaitutakoan Europako herrialdeetara bidaia luzea egiten zuten (hiru eta bost urte bitartekoa), prestakuntza osatzeko eta esperientzia hartzeko helburuarekin.

Industria Iraultzaren ondorioz, bidaiatzeko baliabide ekonomikoak eta aisialdia lortu zituen burgesiak; bidaiatzea aurreko mendeetan baino askoz erosoagoa bihurtu zen, garai hartako asmakuntza nagusiari esker: lurrun-makina. Trena Europa eta Ipar Amerika osoan zehar zabaldu zen, eta itsaso bidezko joan-etorrien iraupena ere izugarri murriztu zen.

1841ean, Thomas Cook-ek, turismo modernoaren asmatzaileak, historiako lehen bidaia antolatuari ekin zion. Bidaia bera porrot ekonomiko galanta izan bazen ere, oso **arrakasta** handiko bidaiatzat jotzen da, 'turismo-paketea'ren aurrekari izan zelako. Izan ere, jarduera horrek izan zitzakeen aukera ekonomiko handiez jabetu zen Cook, eta 1851n munduko lehen bidaia-agentzia sortu zuen: *Thomas Cook and son*.

Lehen Mundu Gerra piztu zenean (1914), Europan 150.000 turista estatubatuar zeuden. Gerra amaitutakoan, autobusen eta automobilen fabrikazio masiboa hasi zen, eta hondartzak eta ibaiak turismoaren jomuga bihurtu ziren Europan. Hegazkina —gutxiengoak erabiltzen zuen distantzia handietarako— poliki-poliki garatzen joan zen, eta ontzi-konpainiei gailendu zitzaien.

Bigarren Mundu Gerrak turismoa erabat gelditu zuen munduan, 1949. urtera arte. 1950 eta 1973 bitartean, turismoaren ***boom***-az hitz egiten hasi ziren. Nazioarteko turismoa historia osoan baino erritmo handiagoan hazi zen. Nazioarteko ordena berria ezartzeak, gizartearen egonkortasunak eta mendebaldeko munduan aisialdiko kultura garatzeak ekarri zuen garapen hori. Garai horretan hasi ziren sektoreari buruzko legeak egiten.

Aldi horretan sortu zen **ongizatearen gizartea**, non behin oinarrizko beharrak beteta, trebakuntza-maila garatzeko eta bidaiatzeko eta beste kulturak ezagutzeko interesa agertu baitzen. Bestetik, lan-legedi berriak (ordaindutako oporrak, 5 eguneko lan-astea, asteko lanaldia 40 ordura murriztea, erretiroaren estaldura sozialak handitzea, langabezia, baliaezintasuna, etab.) asko sustatu zuen aisialdiaren garapena.

Halaber, urte horietan garatu ziren hirigune handiak; agerian geratu zen masifikazioa, eta, harekin, ihes egiteko nahia, hirietako estresetik ihes egitekoa eta buruko presioa arintzekoa.

Automobilen kate-ekoizpenak are eskuragarriago bihurtu zituen bidaiak, eta errepideen eta autobideen eraikuntzak joan-etorriak erraztu zituen. Helizedun hegazkinak erabiltzen hasi ziren erreakziodun hegazkinen ordez; eta hori kolpe handia izan zen ontzi-konpainientzat, ontziak gurutzaldietarako erabili behar baitzituzten edo desegitera bidali.

Faktore horien guztien ondorioz, produktu turistikoa estandarizatu zen. Operadore turistiko handiek milioika turismo-pakete berdin merkaturatu zituzten. Kasu gehienetan charter hegaldia erabili zen; eta produktua merkatu eta ezagun bihurtu zuen horrek. Garai horren hasieran (1950), 25 milioi turista zeuden; 1973an, berriz, 190 milioi.

Bestalde, esperientzia falta izan zen etapa horren ezaugarri nagusia, eta horren ondorio izan zen, esaterako, hirigintzako **plangintza** falta: aurreikuspenik gabe eraiki zen, eskaerak eta turista asko iristeak ingurumenean eta gizartean izan zitzaketen inpaktuak kontuan hartu gabe.

70eko hamarkadan, energia-krisiak eta horrek eragindako inflazioak, bereziki garraiokoak, krisialdi berri bat eragin zuten

turismo-industrian. Krisialdiak 1978. urtera arte iraun zuen. Atzeraldi horren ondorioz, kalitatea murriztu zen, kostuak eta presioak jaisteko, eta eskaintza eta eskaria ugaritzearen aldeko apustua egin zen.

80ko hamarkadan, bizi-kalitatea berriro igo zen, eta turismoa herrialde askoren motor ekonomiko bihurtu zen. Garraioak hobetzeak eta charter hegaldiak finkatzeak ere lagundu zuten.

Urte horietan, ostalaritza-enpresa handiak eta operadore turistiko handiak asko nazioartekotu ziren; aisialdia erabiltzeko modu berriak bilatzen zituzten (parke tematikoak, kirola, arriskua, osasuna...) eta marketin-teknikak erabiltzen zituzten, turistek gero eta esperientzia gehiago baitzuten eta turismo-produktu eta turismo-leku berriak bilatzen baitzituzten., Horrek guztiak lehiakortasun handia sortu zuen. Multimedia-teknologiek eta komunikazioek sektorea eraldatu zuten; produktuen diseinua eta zerbitzuak emateko modua aldatu zituen, eta merkataritza erraztu zuen. Azken urteotan, aire bidezko bidaiak berriro merkatu dira kostu txikiko konpainiei esker, sektorea herrialde askotan liberatzeari esker eta, ondorioz, lehia gogorrari esker.

Nori egiten dio mesede turismoak?

Nori egiten dio mesede turismoak?

Turismoaren orokortzea "ongizate-estatuarekin" lotuta dagoenez, turismoa egiteko pribilegioaren hedadura haren mugetara iristen da: Turismoaren Mundu Erakundearen arabera, munduko biztanleen % 3-5ek baino ezin du bidaia bat egin atzerrira. Normalean, herrialde aberats industrializatutako biztanleak edo Hegoaldeko herrialdeetako maila aberatsetako biztanleak dira horiek.

Jarduera horietan hiru aldek hartzen dute parte: turismoa egiten dutenek, jatorrizko herrialdeek eta enpresek, eta helburuko herrialdeek eta enpresek. Denei mesede berdin egiten die?

Turismoa egiten dutenak aberastu egiten dira leku berriak, kultura berriak eta beste giza talde batzuk ezagutuz, eta edertasunaz, berritasunaz eta esperientzia berriak bizitzeak ematen duenaz gozatuz.

Helburuko herrialdeentzat, turismoa mana bat da? Ez guztiz eta ez kasu guztietan. Ondorioak oso desberdinak dira herrialde aberatsak izan edo herrialde pobretuak izan, azpiegitura eta turismo-industria desberdinak baitituzte. Turistak hartzen dituzten biztanleentzat, ikuspegi berriak ezagutzeko aukera bat da. Francoren diktaduraren garaian, adibidez, turismoaren boomak irekiera bat adierazi zuen: beste bizimodu batzuk zeudela ikusi genuen, gure errealitatea ez zela izan zitekeen errealitate bakarra. Turismoa ez da mana bat (ikusiko dugunez), baina bai herrialde pobreek egin duten apustu berri eta sendo bat.

"Hau ezin da diruz ordaindu oihu egiten du turistak turismo-leku exotikoen edertasunaren aurrean. Baina ordaindu, ordaintzen da, eta garesti, gainera. **Partzuergo transnazional** batzuek ateratzen dute horren guztiaren irabazia, haien esku baitago turismo-negozio osoa: turistagaiak bidaia-agentziako atetik sartzen denetik, argazki eta oroitzapenez beteta etxera itzultzen den arte (garraioa, ostatua...). Enpresa horiek ingurumen orokorrari eta tokikoari probetxua ateratzen diote eta doan salerosten dute, baina ingurumenaren "higadura" ez zaio inoiz gehitzen bidaiaren prezioari. Turismoa egiten dutenek ordaintzen dute prezioa unean-unean.

Baina garestien tokiko biztanleek ordaintzen dute. Izan ere, batetik, ez diete etekina berdin ateratzen ikuspuntu askotatik beraiei dagozkien aberastasunei, eta, bestetik, turismoak ekar dezakeen hondatzea pairatzen dute. Eta, nolabait, denok ordaintzen dugu hori, turismoak eragiten dituen ondorio ekologiko globalengatik.

Rio+10 Goi-bilerari begira, Erdialdeko Europako hainbat erakundek Turismoaren Garapen Jasangarrirako Lantaldea (DANTE) sortu zuten, eta *Turismoarentzat txartel gorria?* dokumentua sinatu zuten. Dokumentu horrek argi adierazten du nola banatzen diren turismoaren onurak eta galerak: "Galtzaileak Iparraldeko eta Hegoaldeko eskaintzaile txikiak dira, ingurumenarekin eta gizakiokin bateragarriagoak diren bidaiatze-moduen alde etengabe borrokatzen dutenak, turismo-merkatu globalizatuan posizio ahulagoa dutenak. Bestalde, kaltetuenak turismo-eskualdeetako, batez ere, Hegoaldeko, biztanle diskriminatuak dira: emakumeak, haurrak, gutxiengo etnikoak eta herri indigenak. Turismoak neurrigabe kontsumitzen dituenez baliabideak, haiek beste muga batzuk pairatu behar dituzte bizi diren inguruneetan, eta ez dute aukerarik defendatzeko edo horregatik guztiagatik kalte-ordainik jasotzeko".

Gaizki-ulertu eta nahasketa batzuk

Gaizki-ulertu eta nahasketa batzuk

Turismoa **garapen ekonomikoaren** motor eraginkor gisa aurkeztu izan da. Baina, turismoko dibisen ia erdiak bidaiariaren edo turismo-enpresen jatorrizko herrialdeetara itzultzen direla kontuan hartu gabe –kontuan hartu beharrekoa izan arren–, 'mana' horri bi gauza gertatzen zaizkio: batetik, bibliako manari bezala, ez du bihar arte irauten, eta, bestetik, ez da bidezko moduan banatzen. Hobekuntza batzuk ekartzen ditu, azpiegitura batzuenak, adibidez, baina horiek turismoaren lehentasunen arabera egiten dira, ez tokiko biztanleen arabera. Turismoaren Mundu Erakundearen arabera, pobreen –eguneko 1 € baino gutxiagoko errenta dutenak– % 80 12 herrialdetan bizi da, eta horietako 11 herrialdetan turismoa da diru-sarrera nagusia.

Turismo-jarduerak sortzen duen lana urtaroen araberakoa da, ezegonkorra eta prestakuntza gutxikoa, eta lan-kondizio eskasak izaten dira, edo gehiegikeria hutsa. Haurren esplotazioa bereziki gogorra da turismo-eskualdeetan, eta ezaugarri propioak ditu: Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) kalkuluen arabera, 18 urtetik beherako 13-19 milioi pertsonak egiten dute lan turismoaren sektorean. Adin txikiko guztiek esplotazio-baldintzetan lan egiten ez badute ere, oso soldata txikiak dituzte, eta askok ikasketak uzten dituzte. Aparte aipatzekoa da **haurrak** eta gazteak esplotatzeko modurik penagarriena: sexu-esplotazioa. UNICEFen arabera, urtero milioi bat haur eta gazte dira esplotazio mota horren biktima.

Turismoak eragiten duen **ingurumen-inpaktua** orokorra eta tokikoa da. Hasteko, turismo-bidaiek energia xahutzen dute: turismoak kontsumitzen du munduan helburu zibiletarako erabiltzen diren hegazkinetarako 130 milioi tona erregaien ia erdia. Eta turisten 'beharren' ondorioa ere bada, tokiko biztanleek eskuratu ezin dituzten zerbitzuetara eta xahutze jasanezinetara ohituta baitaude. Klima beroko eta ur gutxiko herrialdeetan, turismo-azpiegiturek (hotelak, golf-zelaiak, etab.) ur-gastu handia eragiten dute. Nekazaritza eta bestelako ekoizpen-jarduerak, ordea, ezin dira behar bezala garatu baliabide horren urritasunagatik. Georges Cazes, turismo-aditua eta bidezko turismoaren aldeko borrokalaria, turismo-politiketan eta -jardueretan turismo-lekuen **karga-ahalmena** kontzeptua sartzearen aldekoa da.

Horrek guztiak ez du esan nahi ondorio positiborik ez dagoenik. Monumentu historikoek eta izaki bizidunek, leku batzuetan, jasotzen duten babesa ez litzateke planteatu ere egingo turismoak ematen dien balio ekonomikorik gabe.

Turismoak badu inpaktu bat atentzioa izugarri ematen duena: neurri handi batean turismoa bultzatzen duen paisaia hondatzea. Ez dago eskualde exotikoetara joan beharrik turismo ugariak eragiten duen ingurumen-inpaktua ikusteko eta sentitzeko: nahikoa da Espainiako itsasbazter mediterraneoa bisitatzea, edo begiak ez ixtea oporretako hirien eta nonahiko paradisuen argazkien eta iragarkien aurrean. Naturaguneak urbanizatzen dituzte, ur gehiegi erabiltzen dute, zaborren tratamenduarekin erlazionatutako arazoak dituzte, hondakin likidoek ura poluitzen dute, eta paisaia aldatzen dute aisialdiko jarduerak sustatzeko –esaterako, golfa eta eskia–. Prozesu horiek are larriagoak dira turismo-industria laguntzeko ingurumen-araudiak permisiboagoak diren herrialdeetan.

Turismoak onurak izan ditzake, kultura desberdinak erlazionatzeko bidea ematen baitu. Bestalde, turismoaren **inpaktu soziokulturalak** bere alde txarra ere badu. Aldaketak bizkortzeko joerak, elementu kultural garrantzitsuak suntsitzeaz gain, anfitrioien beharrei eta nahiei erantzuten dien bilakaera bat eragozten du batzuetan. Horrez gain, kulturaren ikuspuntutik, eta, batez ere, komunitate txikienetan eta isolatuetan, fenomeno hau gertatzen da: kultura salgaia bihurtzen da, bere esanahia adieraztea galarazten zaio, alegia, prostituzio-prozesu argi batean sartzen da. Komunitatearen bizitzan paper jakin bat duten errituzko dantzak luxuzko hoteletan bazkalondoak atsegin bihurtzeko dantzatzen dituzte; artisau-lanek beren erabileraren balioa galtzen dute eta salgai bihurtzen dira, "...(e)ko oroigarri" gisa saltzen baitira.

Bidezko etekinak emango dituen turismoa

Bidezko etekinak emango dituen turismoa

Uko egin behar diogu turismoari? Are luxu elitistagoa zeneko garaietara itzuli behar dugu? Ez, baina beste alorretan gertatzen den bezala, ezin dugu bizi asko garela eta eskubidez berdinak garela kontuan hartu gabe. Eredua eta jarrerak aldatu behar dira. Ekologistek aldarrikatzen zuten bezala: "Turismoa bai, baina ez edozein preziotan: dena ez dago salgai".

Turismo jasangarriak, Turismoaren Mundu Erakundearen arabera, "turisten eta eskualde anfitrioien beharrei erantzuten die, eta,

aldi berean, etorkizuneko aukerak babesten eta hobetzen ditu. Baliabideak kudeatzeko garaian, aintzat hartzen da behar ekonomiko, sozial eta estetikoak betetzea, eta, aldi berean, kultura-osotasuna, oinarrizko prozesu ekologikoak, biodibertsitatea eta bizitzaren euskarri-sistemak errespetatzea".

Turismo jasangarriaren eskaintza handitzen ari da. Sektoreko enpresak eta tokiko komunitateak elkartu egin dira masa-turismoaren eredua hobetzeko eta alderdi negatiboak arintzeko beste eredu batzuk sustatzeko. Hala, oraindik berriak badira ere, beste mota bateko turismoak sortu dira: komunitatean eta ekoturismoan oinarritutakoa, turismo arduratsua, bidezko turismoa edo 'turismo solidarioa' delakoa. Oraindik merkatuan posizio marjinalean badaude ere, eskaintza onuragarriak dira Hegoaldeko herrialdeentzat.

Masa-turismoa gutxietsi egiten da, baina populazio-talde handiek turismoa eskura dutela adierazten du –horrek dituen onura guztiekin–, eta horrek, neurri batean, eskubideen erabileran berdintasun-maila handiagoak daudela adierazten ditu. Beraz, irtenbidea ezin da izan turismoa eskura izateko aukera hori mugatzea, inpaktu negatiboak minimizatzeko eta positiboak sustatzeko baldintzak sortzea baizik.

Ezinbestekoa da enpresek –bereziki handiek– eta gobernuek erantzukizunak beren gain hartzea. Horretarako, turismo-lekuetako biztanleen –bereziki, langileen– eskubideen kontura eta ingurunean kalteak eginez lortutako emaitzen kontuak handitzeari utzi behar diote enpresek. Gobernuek, berriz, kondizio jasangarriak eta turismoaren onurak modu bidezkoan banatzea bermatuko duten legediak egin behar dituzte. Hori guztia egin behar da alde batera utzi gabe biztanleen heziketak duen garrantzia. Herritar arruntok errespetuzko portaerak geureganatu behar ditugu, inguruan kalterik egingo ez dutenak, esplotaziorik eragingo ez dutenak, eta, zalantzarik gabe, esperientzia aberastuko dutenak.

Nola bidaiatu inbaditu gabe

Nola bidaiatu inbaditu gabe

Turismoaren Mundu Erakundeak T*urismorako Munduko Kode Etiko* bat egin du, eta haren helburuetako bat da turista eta bidaiari arduratsu izan nahi dutenei laguntzea:

"Bidaiak eta turismoa pertsona eta kolektiboa garatzeko modu gisa ulertu eta praktikatu behar dira. Ikuspegi irekiarekin egiten badira, ordeztu ezinezko faktoreak dira norberaren heziketarako, elkarrenganako tolerantziarako eta herrien eta kulturen arteko benetako diferentziei eta haien aniztasunari buruz ikasteko.

Guztiok ditugu funtzioak bidaia eta turismo arduratsuen orokortze-prozesuan. Gobernuek, enpresek eta komunitateek ahalegin guztiak egin behar dituzte –zalantzarik gabe–, baina zuk ere, bisitari zaren heinean, helburu hori betetzen lagundu dezakezu hainbat modutara:

1. Ireki ateak zureak ez diren kultura eta tradizioei: zure esperientzia aldatu egingo da, tokiko herritarren errespetua irabaziko duzu, eta errazago hartuko zaituzte. Tolerantea izan zaitez eta aniztasuna errespeta ezazu; erreparatu iezaiezu tokiko tradizioei eta gizarte- eta kultura-jarduerei.

2. Errespetatu giza eskubideak. Esplotazio-modu guztiek turismoaren oinarrizko helburuak urratzen dituzte.

3. Lagundu ingurune naturala zaintzen. Babestu basaflora eta basafauna eta haien habitata, eta ez erosi arriskuan dauden landareak edo animaliak oinarri dituzten produktuak.

4. Errespetatu baliabide kulturalak. Jarduera turistikoak ondare artistikoa, arkeologikoa eta kulturala errespetatuz egin behar dira.

5. Zure bidaiak garapen ekonomikoari eta sozialari lagundu diezaioke. Erosi tokiko artisau-lanak eta produktuak, tokiko ekonomia laguntzeko, eta egin kasu bidezko merkataritzaren printzipioei. Gauzak erosteko tratuak egitean, kontuan izan bidezko soldataren kontzeptua.

6. Bidaia egin aurretik, informa zaitez zure helburuko lekuko osasun-egoerari eta kontsul-zerbitzuak eta larrialdi-zerbitzuak eskuratzeko moduari buruz, eta ziurtatu zure osasuna eta segurtasun pertsonala ez direla arriskuan egongo.

7. Bildu helburuko herrialdeari buruz ahal duzun informazio gehien, eta eman denbora hango ohiturak, arauak eta tradizioak ulertzen. Saihestu tokiko biztanleak mindu ditzaketen portaerak.

8. Informatu indarrean dagoen legediari buruz, bisitatutako herrialdean delitutzat jotzen den ekintzarik egin ez dezazun".

Turismo-enpresek aplika ditzaketen xedapenak ere jaso ditu kodeak; izan ere, haiek dute hogeita hamaika eskutik, eta oso garrantzitsua izan daiteke haiek beren negozio-jarduerak aldatzea industria hau jasangarria izan dadin Hegoaldeko herrialdeetan.

Puntu aipagarrienen artean daude, esaterako, tokiko biztanleak eta komunitateak jarduera turistikoekin bat egitea, eta haiek ematen dituzten onura ekonomiko, sozial eta kulturaletan partaidetza zuzena izatea, bereziki, enpleguaren zuzeneko edo zeharkako sorreran. Langileen oinarrizko eskubideak bermatzeko eskubidea ere aitortzen du, besteak beste: hasieran eta etengabe trebakuntza egokia jasotzea, gizarte-babes nahikoa izatea eta laneko ezegonkortasuna ahalik eta gehiena mugatzea. Enpresa multinazionalei dagokienez, hau jaso da: enpresa horiek ez dute baliatu behar beren posizio menderatzaileaz, eta komunitate hartzaileei eredu kulturalak artifizialki inposatzen dizkieten transmititzaile izatea saihestu behar dute.

"Turismoan garapen jasangarriaren hiru oinarriak –guztion ongia, ekonomia eta ingurumena– bateratzeko, lehenbizi turismoaren egungo jardunbide ekonomikoen kontradikzioak detektatu eta argi adierazi behar dira. Orduan baino ezingo da egin beti bi bide izango dituen estrategia bat. Batetik, ondorio negatiboak arindu behar dira –esaterako, lan-baldintza txarrak edo baliabideen gehiegizko kontsumoa– neurri zehatzen bitartez, adibidez, gizarte-babeserako klausulekin edo teknologia ekoeraginkorrekin. Bestetik, pobreziaren kausen eta ingurumen-krisiaren aurka borroka egin behar da; hau da, pobrezia eta ingurumena hondatzea eragiten duten egiturak ezabatu behar dira".

Turismoarentzat txartel gorria?

TURISMO JASANGARRIAREN GUTUNA

1. Turismoaren garapenak jasangarritasun-irizpideak izan behar ditu oinarri; hau da, epe luzera ekologikoki jasangarria izan behar du, ekonomikoki bideragarria eta tokiko komunitateentzat bidezkoa ikuspegi etiko eta sozialetik.

Garapen jasangarriaren bitartez baliabideen kudeaketa orokorra egin nahi da haien iraupena ziurtatzeko, eta gure kapital naturala eta kulturala zaintzeko, babestutako guneak barne. Turismoa garapen-tresna ahaltsua izanik, garapen jasangarriaren estrategian parte har dezake eta parte hartu behar du. Turismoaren kudeaketa on bat egiteko, turismoak behar dituen baliabideen jasangarritasuna bermatu behar da.

2. Turismoak garapen jasangarriaren alde egin beharko luke; naturaren, kulturaren eta gizakiaren arloetan integratu beharko litzateke, eta turismo-leku askoren ezaugarri diren oreka ahulak errespetatu –bereziki, uharte txikien eta ingurumenari dagokionez sentikorrak diren eremuen ezaugarri direnak– . Jarduera turistikoak bilakaera onargarri bat aurreikusi beharko du, turismoak baliabide naturaletan, biodibertsitatean eta sortutako inpaktuak eta hondakinak asimilatzeko gaitasunean duen eraginari dagokionez.

3. Jarduera turistikoak kontuan hartu behar ditu tokiko komunitateen ondare kulturalean, eta elementu, jarduera eta dinamika tradizionaletan duen eragina. Turismo-estrategiak egitean, kontuan izan behar dira nahitaez tokiko faktore horiek onartzea eta haien nortasunaren, kulturaren eta interesen alde egitea, bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeetan.

4. Turismoak garapen jasangarriari aktiboki laguntzeko, prozesuan parte hartzen duten eragile guztien –bai publikoen bai pribatuen– partaidetza, elkartasuna eta elkarrenganako errespetua bermatu behar dira. Adostasun horrek maila guztietako –tokikoa, estatukoa, eskualdekoa eta nazioartekoa– lankidetza-mekanismo eraginkorretan oinarritu behar du.

5. Ondare naturala eta kulturala zaintzea, babestea eta hari balioa ematea lankidetzarako eremu pribilegiatuak dira. Erantzule guztiontzat, jarrera horrek kultura, teknologia eta lanbidea berritzeko erronka handia adierazten du, eta, gainera, plangintza eta kudeaketa integraturako tresnak sortzeko eta garatzeko ahalegin handia eskatzen du.

6. Turismo-lekua zaintzeko eta turistaren gogobetetzea asetzeko kalitate-irizpideek –tokiko komunitateekin batera zehaztuak eta garapen jasangarriaren printzipioetan oinarrituak– lehentasunezko helburuak izan behar lukete turismo-estrategiak eta -proiektuak egitean.

7. Garapen jasangarrian parte hartzeko, tokiko ekonomiak eskainitako aukeren aniztasunean oinarritu behar du turismoak, erabat integratzea bermatu eta tokiko garapen ekonomikoari positiboki lagundu behar dio.

8. Turismoa garatzeko aukera orok biztanleen bizi-kalitatearen hobekuntzan eta turismo-leku bakoitzaren aberastasun soziokulturalean eragin behar du.

9. Gobernu eta agintari eskudunek, GKEen eta tokiko komunitateen parte-hartzearekin, turismoaren plangintza integratzeko jarduerak gauzatu behar dituzte garapen jasangarria laguntzeko.

10. Munduko herrien arteko gizarte- eta ekonomia-kohesioa garapen jasangarrirako oinarrizko printzipioa dela onartzen badugu, turismoak eragindako onurak eta kargak modu bidezkoago batean banatzeko neurriak bultzatu behar dira. Horrek kontsumo-ereduak aldatzea eragiten du, baita ingurumen-kostuak txertatzeko aukera ematen duten prezioa ezartzeko metodoak erabiltzen hastea ere.

Gobernuek eta alde anitzetako erakundeek lehentasuna eman beharko liekete ingurumen-kalitatea hobetzen laguntzen duten turismo-proiektuetarako zuzeneko eta zeharkako laguntzei, eta indartu egin beharko lituzkete. Esparru horretan, sakon ikertu behar da turismoan baliabideen erabilera jasangarria ziurtatuko duten nazioarteko tresna ekonomiko, juridiko eta fiskal harmonikoen aplikazioari buruz.

11. Ingurumenaren eta kulturaren ikuspuntutik ahulak diren guneek, bai oraingoek bai etorkizunekoek, lehentasun berezia izan behar dute turismoaren garapen jasangarrirako laguntza finantzarioetan eta lankidetza teknikoan. Halaber, tratamendu berezia jaso behar dute turismo-eredu zaharkituek eta inpaktu handikoek degradatu dituzten guneek.

12. Egonkortasun-bermea da garapen jasangarriarekin bat datozen turismo-modu alternatiboak bultzatzea eta turismo-produktuen dibertsifikazioa sustatzea epe ertain eta luzerako. Helburu hori lortzeko, eskualdeen arteko lankidetza aktiboki ziurtatu eta indartu behar da, bereziki, uharte txikien eta ekologikoki ahulagoak diren eremuen kasuan.

13. Ingurumenaren aldetik jasangarriak diren turismo-teknologiei eta turismoari buruzko ezagutzak ikertzeko, zabaltzeko, transferitzeko eta haien buruz informatzeko sare irekiak sortzea sustatu behar dute eta haietan parte hartu behar dute gobernuek, turismo-industriak, agintariek eta turismoaren erantzule diren GKEek.

14. Turismo-politika bat jasangarri gisa definitzeko, ingurumenaren aldetik bateragarriak diren kudeaketa-sistemen laguntza behar da eta haiek sustatu, sektorea eraldatzeko aukera ematen duten bideragarritasun-azterketak egin, erakusketa-proiektuak abian jarri eta nazioarteko lankidetzaren alorrean programak garatu behar dira.

15. Turismo-industriak, turismoarekin lotutako jarduerak egiten dituzten erakundeekin eta GKEekin lankidetzan, turismoaren garapen jasangarria bermatuko duten ekintza positiboen eta prebentiboen esparru zehatzak diseinatu behar ditu, eta jardunbide horiek gauzatzea lagunduko duten programak ezarri. Lorpenen segimendua egingo dute, emaitzei buruzko informazioa emango dute eta elkarri beren esperientzien berri emango diote.

16. Arreta berezia jarri behar zaie turismo-jardueran garraioari eta garraioak ingurumenean dituen eraginei, baita energien eta baliabide ez-berriztagarrien erabilera murrizteko tresnen eta neurrien garapenei ere. Horrez gain, turismo-instalazioetan birziklatzea eta hondakinak murriztea sustatu behar da.

17. Turismoa jarduera jasangarria izan dadin, ezinbestekoa da jardueran parte hartzen duten eragile nagusien jasangarritasuna bultzatuko duten portaera-kodeak ezartzea eta praktikan jartzea, batez ere, turismo-industriako kideena. Kode horiek turismo-jarduera arduratsuak garatzeko tresna eraginkorrak izan daitezke.

18. Turismo-industrian parte hartzen duten alde guztiak –tokikoak, estatukoak, eskualdekoak eta nazioartekoak– Lanzaroteko Konferentziako edukiei eta helburuei buruz sentsibilizatzeko eta informatzeko neurri guztiak gauzatu behar dira.

Turismo Jasangarriari buruzko Mundu Konferentzia. Lanzaroten, 1995eko apirilean.

Jardunbide egokiak

Turismoaren gorakada baino askoz berriagoa da turismoak parametro batzuetara doitzeko beharraren kontzientzia, alderdi guztietan garapen jasangarriko faktorea dela berma dadin, besteak beste, alderdi hauetan: ingurumenarekiko errespetua, onuren bidezko banaketa eta tokiko herritarren parte-hartzea. Pixkanaka, arau horiek praktikara eramaten dituzten ekimenak sortzen ari dira; esaterako, kode etikoak, araudiak eta proiektuak.

Batzuetan, proiektu horiek GKEen eta bestelako kolektibo sozialen lanarekin lotuta daude (ikus gomendatutako web orriak 'Gehiago jakiteko...' atalean). Beste batzuetan, berriz, enpresek bitarteko batzuk jartzen dituzte onurek neurri batean tokiko biztanleei eragin diezaieten. Dominikar Errepublikan (horren alderantzizko adibideak ugariak dira) bi enpresak egiten dute hori:

Punta Cana Resort & Club taldea kapital dominikarreko enpresa bat da, eta 'turismoaren garapen jasangarriaren adibide eta eredu' deklaratu zuten Johannesburg-eko Garapen Jasangarriari buruzko goi-bileran. Aipatutako taldeak fundazio bat jarri du abian, eta fundazio horrek ingurumena babesteko ikerketak eta proiektuak sustatzen ditu, eta langileen senideentzat etxebizitzak eta ikastetxeak eraikitzen ditu. Horrez gain, tokiko biztanleentzat osasun-zentro bat egitea lortu du.

Romana-Bayahíbe hotelen elkarteak antzeko ekimenak egiten ditu, eta onurak, nolabait, tokiko biztanleetara iritsarazten saiatzen da. Jardunbide egokiak dira, bakanak eta berriak, baina poliki bada ere, bidezkoak eta jasangarriak diren garapen-kondizioen norabidean mugitzen dira.

Bidaiariak, turistak, erromesak

Kavafis poetak idatzi zuen –eta Lluis Llachek kantatzen du– Ulisesi gertatu zitzaion onena ez zela Itacara iristea izan, bidaia bera baizik, "abenturetan eta jakindurian aberats" egin baitzuten. Horretarako, noski, modu jakin batean egin behar dira bidaiak. Poetaren hitzak hitzez hitz hartzen baditugu, turismoa ibilaldi bat egitea bezala da. Argazkiak eta pasaportean zigiluak pilatzea baino esperientzia zabalagoa eta sakonagoa da bidaiatzea. Santiago Bidea –Europako historia eta geografia zeharkatzen dituen tradizioa– egitearen esperientziak haren zentzua ulertzen eta han barneratzen denari baino ez dio eragiten. Eta bidaia guztiak izan daitezke bide bat. Horrela bidaiatzeko bagajerik garrantzitsuena begirada da; ez turista baten begirada –azalekoa, harraparia, kontsumitzailea–, bisitatzen duenarena baizik: kontenplaziozkoa, komunikatzailea. Horrek ematen du paisaiez eta haiek duten onenaz gozatzeko aukera: haietan bizi diren pertsonez, alegia.

Gehiago jakiteko...

Gehiago jakiteko...

Txostenak

Código ético de responsabilidad social. Sector de hostelería en Europa
ETHOS, Ostalaritza-enpresetan erantzukizun soziala sustatzeko sarea. Comisiones Obreras-en Estatuko Merkataritza, Ostalaritza eta Turismo Federazioa (DECOHT CCOO).
http://www.proyectoethos.org/codigo.pdf

Guía para un consumo responsable
Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Behatokia. HISPACOOP, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Kooperatiben Espainiako Konfederazioa. 2007ko martxoa.
http://www.IntermonOxfam.org/consumoresponsable

Directrices para el desarrollo del turismo comunitario
Nazioarteko WWF. 2001eko uztaila.
www.icrtourism.org/Publications/WWF3spa.pdf

Filmak

Babel
Zuz.: Alejandro González Iñárritu.
AEB, 2006 (143').

El turista accidental
Zuz.: Lawrence Kasdan.
AEB, 1988 (121').

Proposamen didaktikoak

Turismo responsable. Propuesta didáctica para las escuelas
Roberto Varone. Italierako itzultzailea: Paola Sarti. Acsud Las Segovias.
http://www.edualter.org/material/turisme/responsable.htm

Web guneak:

Web guneak:

Turismorako Munduko Kode Etikoa. NBEk 2001eko abenduan onartua.
http://www.unwto.org/code_ethics/sp/global.htm

Turismoaren Mundu Erakundea.
http://www.world-tourism.org

Turismo arduratsua. Acsud-Las Segovias proiektua (Hegoaldearekin lankidetzan aritzeko elkartea).
http://www.turismoresponsable.net/

Bidezko turismoa. Turismoan eta garapenean espezializatutako GKEa.
www.turismojusto.org



Bisitatu gure web gunea eta jaitsi Global express!!

www.IntermonOxfam.org/educar/global

ECPAT International. Haurren prostituzioa, haur-pornografia eta helburu sexualetarako haurren trafikoa ezabatzeko elkarrekin lan egiten duten erakundeen eta banakakoen sarea. Besteak beste, haurren turismo sexuala prebenitzeko programa bat du.
http://www.ecpat.net/es/index.asp

Turism Concern. Turismo-esplotazioaren aurka borroka egiten duen erakundea (ingelesez).
http://www.tourismconcern.org.uk/

Ikasleen artean komunikabideek kontatzen dutenari buruzko galderak sor daitezen nahi du Global Expressek. Errealitatearen ikuspegi kritikoa sustatzea da helburua, munduaren egoera eta, bereziki, garatze-bidean dagoen munduarena, ulertu ahal izateko.

Hauen ekimena da *Global Express*: Centrum voor Mondiaal Onderwijs (Herbehereak), Curriculum Development Unit (Irlanda), Centro Educazione Mondialità (Italia) e Intermón Oxfam (Espainia).
Hauek finantzatzen dute *Global express*:

AECI
AGENCIA ESPAÑOLA DE COOPERACIÓN INTERNACIONAL